LAN MERKATUAREN BALANTZEA 2017

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

2017

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

Lanbide

Txosten honetan EAEko lan-merkatuak 2017. urtean izan dituen gertaera nagusiak aztertzen dira, haren aldagai garrantzitsuenen portaera kontuan hartuta. Lan-merkatuari lotuago dauden administrazio-iturriak hartu dira kontuan (Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregistratutako langabezia eta kontratuen erregistroa), baita biztanleen lan-jarduera neurtzen duten eragiketa estatistiko nagusiak ere (Estatistikako Institutu Nazionalaren – EIN- Biztanleria Aktiboaren Inkesta – BAI - eta Eurostat-en Labour Force Survey-ko datu batzuk)

Aurkibidea

Testuinguru Sozioekonomikoa 4

Lanbiden erregistratutako langabezia 5

Gizarte Segurantzako afiliazioa 7

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak 8

Enplegua EINren BAIren arabera 10

Langabezia EINren BAIren arabera 12

Eranskina - Taulak 14

Testuinguru Sozioekonomikoa

2017ko laugarren hiruhilabetean, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urte arteko %3,0ko hazkundea izan du, eta 2018 urteari dagokionez, urte arteko %2,5eko hazkundea aurreikusten da

Eustat-ek aurreratutako datuen arabera, 2017ko laugarren hiruhilekoan **EAE**ko BPGak urte arteko %3,0ko hazkundea izan du, aurreko hiruhileko maila berdina mantenduz. 2016ko laugarren hiruhilabetekoan lortutako tasarekin alderatuta, hamarren bat gehiagoko tasa erregistratu da.

Balio erantsi gordinari egindako ekarpena positiboa izan da ia sektore guztien aldetik. Salbuespen bakarra lehen sektorea izan da. Horrela, 2017ko euskal ekonomiaren bilakaera, sendotzen ari den testuinguru ekonomiko batean kokatu daiteke.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, "Koiuntura DI-DA batean 2018ko urtarrila eta otsaila" txostenak

Europako Ekonomiari dagokionez, egonkortze prozesu bat nabari da urteko laugarren hiruhilekoan: urte arteko bariazioa %2,7koa izan da (3 hamarren Euskadiko tasaren azpitik), hirugarren hiruhilekoan lortutakoa baino (2,8%) apur bat baxuagoa. Izan ere, aurreko hiruhilekoan lortutako tasa izan da azken bost urteetan lortutako tasarik altuena.

Hiruhileko honetan ere, azpimarratu beharra dago **Espainia**ko ekonomiaren bilakaera sendoa. %3tik gorako hazkundeak erregistratu dira aurreko hamaika hiruhilekoetan, 2017ko azken hiruhilekoan %3,1eko hazkundea izanik (Euskadin baino 1 puntu hamarren gehiago).

Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) urtarrilean argitaratutako txostenaren arabera, munduko ekonomiaren dinamismoa, 2018 eta 2019 urteetarako aurreikusitako tasetan islatzen da: %3,9ko tasa aurreikusten da urte bietarako. Datu horiek ekonomiaren goranzko zuzenketa bat erakusten dute, batez ere, ekonomia aurreratuen eboluzio onak eraginda.

Beheko taulan adierazten den bezala, Consensus Forecast-ek Eurogunerako 2018 urterako egindako BPG-aren aurreikuspena %2,2koa da. Espainiari dagokionez, NDFk 2018 urterako egindako aurreikuspena %2,4koa da (2 puntu hamarren gehiago).

Euskadiri dagokionez, Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2018 urteko aurreikuspen ekonomikoak berrikusi ditu. Eguneratutako aurreikuspenak, goranzko zuzenketa bat adierazten du 2018 urterako, %2,5eko hazkunde tasa aurreikusiz. Hau horrela izanda, dinamismo ekonomikoaren moderazio bat aurreikusten da 2018 urteko lau hiruhilekoetarako.



Iturriak: Eustat, EIN, Eurostat, Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2018ko urtarrila eta otsaila" txostenak

Lanbiden erregistratutako langabezia

2017 urtean erregistratutako langabeen kopurua %6,3 jaitsi da EAEn; (i) eraikuntza sektoreak gizonezkoen artean izan duen bilakaera (-%16,4) eta (ii) industria sektoreak emakumezkoen artean izan duen bilakaera (-%9) nabarmentzen dira.

Azken 5 urteetan gertatu den moduan, EAEn erregistratutako langabeen kopuruak behera egin du 2017 urtean. Nahiz eta beheranzko tendentzia mantendu den, jaitsiera erritmoa moteldu egin da: 8.626 langabe gutxiago zenbatu dira 2017an, 13.844 gutxiago 2016an eta 15.754 gutxiago 2015an. Autonomia Erkidegoan artean, bilakaera onena Melillan (-%14,9) eta Kantabrian (-%12,5) izan da; okerrena Ceutan (-%4,9) eta Balear Uharteetan (-%5,3). EAE laugarren postuan kokatzen da, langabezia jaitsiera erlatibo txikiena izan duten Autonomia Erkidegoen artean (-%6,3).



Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

Sexuaren arabera, 5. urtez jarraian, bilakaera hobea izan da gizonezkoen artean (-%9,0) emakumezkoen artean baino (-%4,1).

Sektorearen arabera, gizonezkoen artean bilakaera onena eraikuntza sektorean izan da (-%16,4) eta emakumezkoen artean industria sektorean (-%9). Orokorrean, langabeen murrizketa txikiena zerbitzu sektorean izan da (-%6,7 gizonezkoen artean eta -%3,6 emakumezkoen artean). Aurretik enplegurik izan ez duten gizonezko langabe kopuruaren murrizketa nabarmentzen da (-%11,5).

Jardueraren arabera, bilakaera onena izan dutenak ondorengoak dira: (i) eraikuntza espezializatuko jarduerak (-1.105); (ii) eraikinen eraikuntza (-694); (iii) janari eta edarien zerbitzuak (-475); (iv) txikizkako merkataritza (-409); (v) eraikinen zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak (-350); (vi) produktu metalikoen fabrikazioa (-320); (vii) beste jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (-314); eta (viii) Administrazio Publikoa eta Defentsa (-308). Langabezia igoera pairatu duten jarduerak gutxi izan dira, hauen artean gehien hazi direnak hauek izan dira; (i) etxeak langile enplegatzaile gisa (+213) eta (ii) ibilgailuen fabrikazioa (+139). Krisiaren eragina gehien pairatu zuten jardueren artean bilakaera ona izan da, gehien bat eraikuntzarekin erlazionatutakoak; hala nola, ostalaritza eta merkataritzarekin erlazionatutakoak.

Adinaren arabera, ondorengo taulan ikus daitekeen moduan, gazteen artean bilakaera hobea izan da. Zentzu horretan, urte arteko saldoaren arabera, 16-24 adin tarteko pertsonek izan dute bilakaera onena (-%13,6), ondoren 25-34 adin tartekoek (-%10,6). 55-64 adin tartean, aldiz, bilakaera txarrena izan da (-%1,1). Helduen artean izan den bilakaera ez hain positiboa krisiak utzi duen langabezia estrukturalaren adierazle da; langabezian geratu diren pertsona helduek zailtasunak dituzte enplegu berri bat aurkitzeko.



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan zerbitzua. Lanbide Kabinete Teknikoa

Lurralde Historikoen arabera, Gipuzkoak izan du bilakaera onena 2017an (-%8,1), ondoren Arabak (-%6,7) eta, azkenik, Bizkaiak (-%5,4). Eskualdeen arabera, balore absolutuetan bilakaera onena (i) Vitoria - Gasteizen (-1.115); (ii) Bilbon (-1.031) eta (iii) Ezker Eskualdean (-892) izan da. Bestalde, balore erlatiboetan, (i) Gorbeia inguruak (-%14,9); (ii) Deba Garaia (-%13,5) eta Goiherri (-%11,7) nabarmentzen dira. 2017an zehar, langabezia ez da eskualde bakar batean hazi, Lea–Artibai eta Durangaldean murriztu dira gutxien langabeak (-%2,3 y -%2,5, hurrenez hurren).

Jasotako prestazioaren arabera, langabeen %28,3ak soilik jasotzen du langabeziagatik prestazioa (0,6 puntu gutxiago 2016an baino).Prestazioa kobratzen duten langabeen %57,4k kontribuzio prestazioa jasotzen dute (2,9 puntu gehiago aurreko urtean baino), %42,6k sorospena edo TEA jasotzen dute (2,9 puntu baxuago aurreko urteko datua baino).

Langabezia iraupenaren arabera, epe laburreko langabeak gutxiago murriztu dira (-%5,6) epe luzekoak baino (-%6,9). 2016an bi taldeen arteko jaitsiera erritmoen aldea askoz ere handigoa izan zen (epe laburreko langabezia -%7,6 eta epe luzekoa -%10,6), beraz esan daiteke bi taldeetako pertsonek lana aurkitzeko aukerak egonkortzen ari direla. 2017 amaieran epe luzeko langabe kopurua 67.501 izan da, epe laburrekoa, aldiz, 60.046 pertsona.

Nazionalitatearen arabera, langabeen %16,3 atzerritarra da (0,4 puntu gehiago 2016an baino). Azken urtean, bertako langabeen kopurua %6,8 murriztu da, atzerritar langabeen kopurua berriz %3,7. Era berean, 2014-2017 epea aztertzen bada, langabe atzerritarren kopurua gutxiago murriztu da (-%16,3) bertakoena baino (-%24,2). Euskal populazioan atzerritarren pisua altua da, 2017an atzerritarren populazioaren pisua populazio osoaren aldean %7,2koa izan da, Eustaten datuen arabera. Bi arrazoi hauek azaltzen dute Lanbiden erregistratutako langabe kopurua altua izatea: (i) Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzeko Lanbiden lan eskatzaile moduan erregistratu beharra; eta (ii) atzerritar izateak suposatzen duen zailtasuna enplegua bilatzeko orduan. Atzerritar langabetuan artean, Afrika iparraldeko herrialderen bateko nazionalitatea dutenen murrizketa nabarmentzen da (-448) baita Europar Erkidegoko nazionalitatea dutenena ere (-273).

Ikasketa mailaren arabera, 2017ko abenduan, langabetuen %62,2ak oinarrizko ikasketak zituen, %16,9ak Lanbide heziketako ikasketak, %12,3k unibertsitateko ikasketak eta %8,6k batxilergoko ikasketak. 2016ko datuen aldean, murrizketa handiena oinarrizko ikasketak (-%6,9; 5.908 langabetu gutxiago) eta LHko ikasketak (-%6,1; 1.389 langabe gutxiago) dituztenen artean izan da.

Gizarte Segurantzako afiliazioa

2017an, Gizarte Segurantzako afiliazioaren kopuruak %2an egin du gora aurreko urtearekin alderatuz, ia 944.000 afiliatutara iritsiz

2017an afiliazioaren errekuperazioak jarraitzen du, 2014an hasi zena. 2017 bukaeran 943.987 afiliatu zenbatu dira, aurreko urtean baino 18.696 gehiago (+%2) eta 2013an baino 68.826 gehiago (+%7,9). Hala ere, ez da iristen 2008ko uztailan zeuden afiliatu kopurura (982.935), krisi aurretik lortutako maximoa. Nahiz eta aurtengo datua positiboa izan, hil hartan baino 38.948 afiliatu gutxiago daude erregistratuta.



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuaren arabera, gizonezko afiliatu kopurua 498.442 izan da (9.009 pertsona gehiago 2016an baino), emakumezkoen kopurua, aldiz, 445.538 izan da (9.686 gehiago aurreko urtean baino). Emakumeek afiliatu kopuruaren %47,2a dira, aurreko urtean baino hamarren bat gehiago. Krisiaren hasieran emakumezkoek afiliatu guztien %42a suposatzen zuten. Emakumezko afiliatu kopuruak gora egitearen arrazoiak, besteak beste, hauek dira: krisiak gehiago kaltetu ditu gizonezkoak nagusi diren jarduerak eta emakumezkoen presentzia ere handiagoa da gaur egun lan merkatuan.

Jardueraren arabera, hurrengo jarduerak izan dira bilakaera onena izan dutenak 2017an: (i) hezkuntza (+5.007); (ii) manufaktura-industria (+3.039); (iii) osasun jarduerak (+2.601); (iv) jarduera administratiboak (+2.311); (v) ostalaritza (+1.736); (vi) eraikuntza (+1.178); eta (vii) jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (+1.138). Afiliatu kopuruan murrizketak pairatu dituzten jarduerak hauek izan dira: (i) jarduera finantzarioak (-666) eta (ii) etxeetako langileak (-210).

Lurralde historikoaren arabera, 2017ko abenduan Bizkaian afiliatuen 50,1% kontzentratzen zen, Gipuzkoan %33,3a eta Araban %16,6a. Aurreko urtearekin alderatuz, balore erlatiboetan, Araba izan da hazkunde handiena izan duena (+%3), ondoren Gipuzkoa (+%2,2) eta, azkenik, Bizkaia (+%1,6). Araban, afiliazio hazkunde handiena izan duten jarduerak hauek izan dira: (i) jarduera administratiboak (+831); (ii) manufaktura-industria (+824) eta (iii) hezkuntza (+805). Gipuzkoan, hurrengoak: manufaktura-industria (+1.667); (ii) hezkuntza (+1.549) eta (iii) osasun jarduerak (+952). Bizkaian, jarduera hauen bilakaera nabarmentzen da: (i) hezkuntza (+2.653); (ii) osasun jarduerak (+1.379) eta (iii) jarduera administratiboak (+923).

Nazionalitatearen arabera, 2017an, atzerritarren multzoak afiliazioaren 6,1% suposatu du. Aurreko urtearekin alderatuz, afiliatu atzerritarren kopurua %9,5 hazi da, bertako afiliatuena, aldiz, %1,6. Atzerritarren artean, gizonezko kopurua gehiago hazi da (+%11,9) emakumezkoena baino (+%6,7). Lurralde historikoaren arabera, atzerritarren hazkunde handiena Araban izan da (+%11,7), ondoren Gipuzkoan (+%10,8) eta, azkenik, Bizkaian (+%7,6). Europar Batasunetik kanpo datozen atzerritarrak gehiago hazi dira (+%10,9) Europar Batasunetik etorrikoak baino (+%6,6).

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

2017an 298.281 pertsonek 958.100 kontratu sinatu dituzte (aurreko urtean baino %3,4 gehiago)

Kontratatutako pertsonak

2017an, 298.281 pertsonek kontraturen bat sinatu dute EAEn, 2016an baino %4,8 gehiago. Hazkundea handiagoa izan da gizonezkoen artean (+%5,7) emakumezkoen artean baino (+%3,9). 2017an kontratatutako pertsonen artean emakumezkoak %46,9 izan ziren (aurreko urtean erregistratutako ehunekoa baino 0,44 baxuagoa).

Adinaren arabera, kontratatutako pertsona gehien biltzen dituen adin tartea 30-44 urte arteko pertsonena da, kontratatutako pertsona guztien %40a; ondoren, 45 urtez gorakoen tartea (%25,8), 25-29 urte artekoena (%16,1) eta 20-24 urte artekoena (%12,3); azkenik, 20 urte azpikoen tartea dago (%5,8). Hala ere, azkeneko adin tartea izan da hazkunde handiena izan duena aurreko urtearekiko (8.385 kontratatutako pertsona gehiago, +%93,2); aldiz, murriztu den bakarra 20-24 urte artekoena izan da (3.890 kontratatutako pertsona gutxiago, -%9,6).

Nazionalitatearen arabera, kontratatutako pertsonen %14,1 atzerritarrak izan dira, %15,9 gizonezkoen artean eta %12 emakumezkoen artean. Atzerritarren artean gehien nabarmentzen den taldea latinoamerikarrena da, kontratatutako atzerritarren %35 dira; ondoren Europa erkidegotik nahiz erkidegoz kanpotik etorritakoak (%29,4) eta Afrika iparraldetik etorritakoak (%14,6) izan dira.

Errotazio tasa 3,2koa izan da 2017an, hau da, urtean zehar kontratatutako pertsona bakoitzak 3 kontratu baino gehiago sinatu ditu batez beste: 3 gizonezkoen kasuan eta 3,4 emakumezkoen kasuan.

Sinatutako kontratuak

2017an 958.100 kontratu sinatu dira EAEn, aurreko urtean baino %3,4 gehiago. Sexuen arteko banaketa orekatua da, kontratuen %49,9 emakumezkoek sinatu dituzte. Atzerritarrek sinatutako kontratuak kontratu guztien %11,1 izan dira (aurreko urteko portzentajea baino puntu bat altuagoa).

Lurralde Historikoen arabera, Bizkaian kontratuen %51,7 sinatu dira, Gipuzkoan %29,3 eta Araban %19a. Hala ere, Araban izan da hazkunde erlatibo handiena aurreko urtearen aldean (%6,2); Gipuzkoan hazkundea %4,5ekoa izan da eta Bizkaian %1,8koa.

Jardueraren arabera, ostalaritzan kontzentratu da kontratu kopuru handi bat (%15,7), baita manufaktura-industrian (%15), jarduera administratiboetan (%12,2), osasun jardueretan (%12,0) eta merkataritzan (%11,4).

Okupazio taldearen arabera, zerbitzuen sektorean kualifikatuen kontratuak nabarmentzen dira (%31,5), baita kualifikazio gabeko pertsonenak ere (%30,2). Gainontzeko kontratuak profesional zientifiko eta teknikoek (%9,3), industrian kualifikatuek (%8,0), laguntza teknikariek (%7,9), operadoreek (%7), administrariek (%5,7), lehen sektorean kualifikatuek (%0,4) eta zuzendariek (%0,2) sinatu dituzte.

Kontratu motaren arabera, kontratu mugagabeen pisua %7,7koa izan da (aurreko urtekoa baino 0,6 puntu handiagoa); aldi baterako kontratuen pisua %92,3koa izan da. Kontratu mugagabeen %52,1 gizonezkoek sinatu dituzte eta %47,9 emakumezkoek. Aldi baterako kontratuen sexuen araberako banaketa ere orekatua izan da; kontratu mota honen %50,1 emakumezkoek sinatu dituzte. Sinatutako kontratu guztien artean %40,2 lanaldi partzialekoak izan dira (%26,8 gizonezkoen kasuan eta %53,6 emakumezkoen kasuan). Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, azken urteetan kontratu mota honen pisua hazi egin da, krisiarekin batera. 2010. urtea erreferentziatzat hartuz, lanaldi partzialeko kontratuen pisua 6,1 puntutan hazi da (%34,1etik 2010. urtean %40,2ra 2017an).



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan zerbitzua. Lanbide Kabinete Teknikoa



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan zerbitzua. Lanbide Kabinete Teknikoa

Kontratu mugagabeen pisua baxua izateak (kontratu guztien %7,7) ez du esan nahi kopurua murritza denik. Zenbaki absolutuetan, 2017an kontratu mota honen bolumena EAEn 73.328 izan da; aldi baterako kontratuena, aldiz, 884.772. Kontratu mugagabeak egonkorrak izango balira, urte gutxitan aldi baterako kontratuak dituzten pertsona kopuruak behera egingo luke nabarmen. Baina hau ez da horrela, kasu askotan kontratu mugagabea sinatzeak ez baitu enpleguaren egonkortasuna suposatzen.

Hurrengo lerroetan, kontratu mugagabeen analisi sakona egin da:

- **Adinaren arabera,** kontratu mugagabeen pisu handiena duen taldea 25-44 urte bitartekoena izan da (adin tarte horretako kontratu guztien artean kontratu mugagabeak %8,3 izan dira); ondoren 45 urtetik gorakoen taldea dago (%7,4). 25 urtetik azpikoen taldea izan da kontratu mugagabeen pisua baxuena izan duena (%5,8).

- **Okupazio taldearen arabera,** kontratu mugagabeen pisu handiena zuzendarien taldean izan da (okupazio talde honen kontratu guztien artean kontratu mugagabeak %64 izan dira); pisu txikiena, aldiz, zerbitzu sektorean kualifikatuen artean izan da (%6,1). Tartean ondorengo perfilak aurkitzen dira: (i) administrariak (%13); (ii) lehen sektorean kualifikatuak (%11,3); (iii) laguntza teknikariak (%10,5); (iv) operadoreak (%9,3); (v) industrian kualifikatuak (%8,6); (vi) zientzia teknikariak (%8,1) eta (vii) langile kualifikatu gabeak (%6,4).

- **Jardueraren arabera,** 2017an 200 kontratu baino gutxiago izan dituzten jarduerak alde batera utzita, kontratu mugagabeen pisu handiena etxeetako jardueretan izan da (%44,7); pisu txikiena, aldiz, jarduera hauetan izan da: administrazio jarduerak (%2,9), osasun jarduerak (%3) eta artistikoak (%3,4).

- **Nazionalitatearen arabera,** kontratu mugagabeen pisua handiagoa da atzerritarren artean (%11,8) bertakoen artean baino (%7,1). Kontratu mugagabeen %17,1 atzerritarrek sinatu dituzte (aurreko urtean baino 1,4 puntu altuagoa). Emakume atzerritarren artean kontratuen %15,3 mugagabea izan da.

Enplegua EINren BAIren arabera

2017an enplegua %1,5 hazi da aurreko urtearekiko, landun kopurua 915.872 pertsonakoa izan da eta enplegu tasa %70,9koa

2017ko laugarren hiruhilekoan landun kopurua EAEn 915.872 pertsonakoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %1,2 gehiago eta aurreko urtean baino %1,5 gehiago). Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, azken urteetan enpleguaren bilakaera positiboa izan da, landun kopurua 41.370 pertsonatan hazi da 2014-2017 epean (+%4,7).



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan zerbitzua. Lanbide Kabinete Teknikoa

Adin tartearen arabera, aurreko urtearekiko zenbaki absolutuetan, bilakaera onena izan duen taldea 20-24 urte bitartekoa izan da (7.500 landun gehiago); 35-44 urte bitartekoen taldea izan da murrizketa pairatu duen bakarra (3.100 landun gutxiago). 2008 urtearekiko (krisiaren hasiera), enplegua jaitsi egin da gazteen artean (45 urte baino gutxiagokoen artean landun kopurua 142.100 pertsonatan murriztu da). Helduen artean, aldiz, enplegua hazi egin da (64.600 landun gehiago 45 urte baino zaharragoak). Adin araberako bereizketa horrek lotura zuzena du 2008-2017 urte arteko populazioaren bilakaerarekin: 45 urte azpiko 129.448 pertsona gutxiago daude eta 58.796 pertsona gehiago 45 urte baino zaharragoak.

Landunen eta Populazioaren bilakaera adin tartearen arabera, EAEn (pertsona kop.; 2017 vs. 2008)

Adin tartea	Landunak	Populazioa
16-45 urte	-142.100	-129.448
>45 urte	64.600	58.796

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

Sexuaren arabera, emakumezkoen artean (+11.032) enplegua gehiago hazi da gizonezkoen artean baino (+2.735). Zentzu horretan, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, aldatu egin da tendentzia; aurreko urteetan gizonezkoen artean gehiago hazi zen enplegua. Urte honetan izandako landunen artean %47,3 emakumezkoak izan dira (aurreko urteko portzentajea baino 0,5 puntu altuagoa). Enplegu tasari dagokionez, gizonezkoena %75,4koa da eta emakumezkoena %66,6koa (8,8 puntu baxuagoa gizonezkoena baino). Hala ere, azken urtean gizonezkoen enplegu tasa 0,4 hazi da eta emakumezkoena 1,7 puntu.



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan zerbitzua. Lanbide Kabinete Teknikoa

Lurralde historikoaren arabera, Gipuzkoak izan du enplegu tasa altuena (%73,3), ondoren Arabak (%71,9) eta, azkenik, Bizkaiak (%69,3). Bizkaiko enplegu tasa EAEko batez bestekoaren (%70,9) azpitik geratu da, besteak, aldiz, gainetik. Landun kopuruaren bilakaera kontuan hartuz, balore erlatiboetan, Arabak izan du bilakaera onena (+%6,7), ondoren Gipuzkoak (+%1,8). Bizkaian, aldiz, %0,4 murriztu da.

Jardueraren arabera, zerbitzu sektoreak bildu du 2017 amaieran zeuden landun guztien %71,2; industriak %22,8; eraikuntzak %5,1; eta lehen sektoreak %0,9. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan aldatu egin da azken urteetako tendentzia aztertutako sektore guztietan: Alde batetik, lehen sektorean landun kopurua murriztu da (-7.265), baita industrian (-134) eta

eraikuntzan ere (-4.181); aurreko urteetan tendentzia bestelakoa zen, industrian batez ere (23.292 landun gehiago 2016an). Beste alde batetik, zerbitzu sektorean 25.348 landun gehiago erregistratu dira, 2016an, aldiz, landun kopurua 23.790 pertsonatan murriztu zen sektore honetan.



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan zerbitzua. Lanbide Kabinete Teknikoa

Enplegu tasa 2017an %70,9koa izan da (aurreko urtekoa baino puntu bat altuagoa eta 2014koa baino 4,4 puntu altuagoa). EAEko tasa, estatukoa (%66,1) baino 4,8 puntu altuago izan da: horrela, EAEk izan du estatuko 6. tasa altuena; Kataluniak izan du altuena (%72,5) eta Extremadurak baxuena (%56,2). EB-28ko batez bestekoarekin alderatuz, EAEko tasa 1,7 puntu baxuagoa izan da eta Euro Gunekoa baino 0,5 puntu baxuagoa.

EAEko **aldi baterako soldatapekoen tasa** %26,1ekoa izan da, estatuko batez bestekoa baino 0,6 puntu baxuagoa. Estatuan, tasa baxuena izan duten Autonomia Erkidegoak Madril (%18,2) eta Katalunia (%21,6) izan dira; altuena izan dutenak, ordea, Extremadura (%38) eta Andaluzia (%35,7).

Europan izan diren tasak EAEkoaren azpitik geratu dira: 11,8 puntu baxuago EB28an (%14,3) eta 9,9 puntu baxuago euro gunean (%16,2). Sexuaren arabera, emakumezkoen tasa gizonezkoena baino 5 puntu altuagoa izan da; Europan, aldiz, sexuaren araberako diferentzia txikiagoa izan da (1,1 puntu altuagoa emakumezkoena).

Kontratu motaren arabera, EAEko lanaldi partzialeko enplegu tasa %16,8koa izan da (2,1 puntu altuagoa estatukoa baino). Aurreko urteko datuarekin alderatuz, 0,8 puntu murriztu da tasa. Emakumezkoen artean murrizketa nabarmena izan da (2,9 puntu), eta gizonezkoen artean hazi egin da (0,8 puntu). Emakumezkoen artean handiago da lanaldi partzialean dauden landun kopurua (%26,7) gizonezkoen artean baino (%8).

Borondatezkoa ez den lanaldi partzialaren tasa (prekarietate adierazlea) %51,9koa izan da EAEn 2017an (estatukoa baino 9,2 puntu baxuagoa). EB28an tasa %26,4koa izan da (EAEko baino 25,5 puntu baxuagoa) eta euro gunean %29,2koa (22,7 puntu baxuagoa EAEkoa baino). Herrialdearen arabera, Estonian (%7,5), Belgikan (%7,8) eta Herbehereetan (%8,2) izan dira tasa baxuenak; altuenak, aldiz, Grezian (%70,2) Zipren (%67,4) eta Italian (%62,5) izan dira.

Langabezia EINren BAIren arabera

2017 bukaeran langabezia tasa %10,6koa izan da (1,7 puntu apalagoa 2016 urtekoa baino); 108.304 langabe daude Lanbiden erregistratuta

2017 amaieran 108.304 langabe zeuden EAEn erregistratuta. Aurreko urtearekiko, murrizketa 17.885 pertsonakoa izan da, %14,2 kopuru erlatiboetan. Estatuarekin alderatuz, EAE bigarren postuan kokatua da langabezia tasa baxuena dutenen artean, %10,6koa. Langabezia tasa baxuena duen erkidegoa Nafarroa izan da (%9,6); langabezia tasa altuena duena, aldiz, Andaluzia izan da (%24,4). Europa mailan, EAEko tasa EB-28koa baino 3,3 puntu altuagoa izan da eta Euro Gunekoa baino 1,9 puntua altuagoa.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan, EAEko langabezia tasaren eboluzioa positiboa izan da: 2017 bukaeran erregistratutako tasa 1,7 puntu apalagoa izan da aurreko urtekoa baino eta 6 puntu baxuagoa 2013koa baino.

Sexuaren arabera, emakumezkoen artean langabezia 9.544 pertsonatan murriztu da (-%15,6), gizonezkoen artean murrizketa, aldiz, 8.341 pertsonakoa izan da (-%12,8). Gaur egun, langabeen %47,6a emakumezkoak dira (aurreko urtean %48,4koa izan zen). Bi sexuen artean izan den langabezia tasa antzekoa da (%10,6koa emakumezkoena eta %10,5ekoa gizonezkoena). Hala ere, emakumezkoen urteko bilakaera hobea izan da, 2 puntutan murriztu da langabezia; gizonezkoena 1,4 puntutan murriztu da.



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan zerbitzua. Lanbide Kabinete Teknikoa

Adinaren arabera, langabeziaren murrizketa handiena izan duen adin tartea, kopuru erlatiboetan, 25-34 urte bitartekoena izan da (-%30,6; 10.100 langabe gutxiago); ondoren 55 urtetik gorakoen adin tartea (-%23,2; 4.700 langabe gutxiago), 45-54 urte bitartekoena (-%5,3; 1.500 langabe gutxiago) eta 35-44 urte bitartekoena daude (-%0,7; 200 langabe gutxiago). Langabetu kopurua hazi den adin tarte bakarra 20-24 urte bitartekoena izan da (+%1,8; 200 langabetu gehiago). Langabetuen erdiak baino gehiagok, %52,3, 35-54 urte artean kokatzen dira, %33,3k 35 urte baino gutxiago ditu eta %14,4k 55 urte baino gehiago.

Lurralde Historikoaren arabera, Gipuzkoak erregistratu du langabezia tasa txikiena, %8,4; ondoren Arabak (%9) eta, azkenik, Bizkaiak (%12,3). Hala ere, aurreko urtearekiko Arabak izan du bilakaera onena, 2,9 puntutan murriztu da langabezia. Gipuzkoan, langabezia 1,5 puntutan jaitsi da eta Bizkaian 1,4 puntutan. Oraindik aldea handia da krisi aurretik zeuden langabezia tasekiko: 2008ko 3. Hiruhilekoarekin alderatuz, langabezi tasa 4,7 puntu altuagoa izan da Araban; 4,2 Bizkaian eta 3,6 Gipuzkoan.

Nazionalitatearen arabera, atzerritarren langabezia tasa bertakoena baino altuagoa izan da (%29,3 vs %9,2). Europar Erkidegotik kanpoko nazionalitatea duten atzerritarrek erregistratu dute langabezia tasa altuena, %34,3; Europar Erkidegoko nazionalitatea duten atzerritarrek, aldiz, %13,6ko tasa erregistratu dute.

Langabeziaren iraupenaren arabera, langabeen %46,4k 2 urte baino gehiago daramatza egoera horretan eta %9,3k 1 eta 2 urte artean. Beraz, langabeen %55,7 epe luzeko langabeak dira (4,5 puntu baxuagoa aurreko urteko portzentajea baino).

Ikasketa mailaren arabera, langabeen %41,5ek oinarrizko ikasketak ditu, derrigorrezko ikasketak gehienez (bertan daude ikasketa gabeak ere): portzentaje hori altuagoa da gizonezkoen artean (%48,1) emakumezkoen artean baino (%34,2). Langabeen %31,5ek goi mailako ikasketak ditu: %35,3 emakumezkoen kasuan eta %27,8 gizonezkoen kasuan. Gainontzeko %27,1ak batxilergoko edo erdi mailako Lanbide Heziketako ikasketak ditu.

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, langabezia tasa handiena oinarrizko ikasketak dituzten pertsonen artean erregistratu da: tasa %19,2koa izan da (%20,1ekoa gizonezkoen artean eta %18koa emakumezkoen artean). Batxilergoko ikasketak dituztenen artean ere tasa altua izan da: %16,1 (%13,7 gizonezkoen artean eta %18,5 emakumezkoen artean). Erdi mailako Lanbide Heziketako ikasketak dituztenen artean tasa %9,3koa izan da (%9 gizonezkoen artean eta %9,7 emakumezkoen artean). Tasa baxuenak goi mailako ikasketak dituztenen artean erregistratzen dira (unibertsitatekoak nahiz goi mailako Lanbide heziketakoak), %6,1eko tasa (%5,6 gizonezkoen artean eta %6,6 emakumezkoen artean).

Oinarrizko ikasketen kasuan, gizonezkoen langabezia tasa altuagoa da emakumezkoena baino, alderantziz gertatzen da, ordea, goi mailako ikasketetan. Goi mailako ikasketetan emakumezkoen egoera txarrago hau azaltzen lagun dezaketen arrazoiak hauek dira: (i) emakumezkoen kopurua altuagoa da goi mailako ikasketetan; eta (ii) lan merkatuan barneratze txarragoa duten ikasketak aukeratzen dituzte.



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan zerbitzua. Lanbide Kabinete Teknikoa

